

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak milioi batetik 1,8 milioi eurora igo du energia berriztagarrietan inbertitzeko laguntza

Aurtengo deialdirako tokiko erakundeek eta partikularrek aurkeztutako diru-laguntzetarako 355 eskaera egin dituzte

Martes, 26 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien instalazioetan inbertitzeko diru-laguntzak milioi bat eurotik 1,8 milioira igotzea erabaki du. Neurri horrekin, esleitutako aurrekontua % 80 igo da, eta 2011ko diru-laguntzen deialdira aurkeztutako 355 eskaeraren gehiengoari erantzun nahi zaie.

Laguntzen 1,8 milioi eurotatik, 300.000 eurok tokiko erakundeen proiektuak finantzatuko dute eta 1,5 milioi eurok beste eskatzaile batzuen inbertsioak diruz lagunduko dute. Gogoan badugu, laguntzak eskatzeko deialdia iragan ekainaren 29an amaitu zen.

Laguntzak ematen dira energia berriztagarrien zazpi iturri-motatan inbertitzeko: eguzki termikoan, sarearen isolatutako eguzki fotovoltaikoa, sareari lotutako eguzki fotovoltaikoa, saretik babestutako eolikoa, sareari lotutako eolikoa, biomasa eta geotermia. Laguntza-maila instalazioa diruz lagun daitekeen kopuru guztiaren % 10 eta % 50 artean dago, nahiz eta instalazio-motaren arabera diruz laguntzeko gehieneko muga ezberdinak ezarri diren.

Helburua: berriztagarrien egungo potentzia % 63an handitzea

Gaur % 80an handitu den laguntza-ildo honen helburua berriztagarrien foru-potentzia era mailakatuan % 63an handitzea da eta 6.300 enplegu sortzea, [Nafarroa 2020 Ikusmuga III. Plan Energetikoan](#) jasotzen denez. Horretarako, eta Plan horren bidez, Foru Gobernuak datozen urteotan 177 milioi euro bideratuko du 986,1 milioi euroko inbertsio global baten barnean. Kopuru horretatik, % 52,7 aurrezteko eta energiaren eraginkortasunerako neurriak hartzeko izango da, eta gainerakoa sistema elektrikoan edo gasean egindako jardueretarako edo sorkuntzako instalazio berrietarako.

Nafarroa 2020 Ikusmuga III. Plan Energetikoak ondorengo planteatzen du: Nafarroaren autohornidura elektrikoaren % 100 energia-mota horrekin lortzea; Foru Erkidegoak sortuko duen energia garbiaren % 10 kanpora dezala; energia-kontsumoaren % 16 murriztea; eta Bruselako xede guztiak betetzea: lehen-mailako energia-kontsumoan % 20 murriztea (Nafarroak % 30 betetzea aurreikusten du); Europako helburua energiaren azken kontsumoa % 20 murriztea da (Nafarroarena % 31); garraioan

berriztagarriak erabiltzeko orduan, EBren helburua % 10ekoa da (Nafarroarena % 11koa) eta kontsumo elektrikoaren gaineko berriztagarrietan, Europak % 29,4ra heltzea espero du (Nafarroak % 110era).